

bizkaiko hirugarren  
sektorearen behatokia

observatorio del  
tercer sector de bizkaia



## BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN LIBURU ZURIAREN AZTERGAIAREN ZEHAZTAPENA.

Bizkaiko Hirugarren Sektorerearen Behatokiaren ustez, **Bizkaiko hirugarren sektorearen osagarriak dira gizarte zibilak egin dituen ekimen aktiboen multzoa, betiere, ekimen horiek kudeatzeko autonomia eta independentzia badute, irabazi asmorik gabekoak eta orokorrean boluntarioak badira, eta euren jardueraren xedea gizartean oro har esku hartzea bada, honek gizartearen ingurunea hobetu ahal izateko era askotako alderdietatik airtzea suposatzen duelarik, Bizkaiko Lurralde Historikoan.**

Ez da gauza bera Bizkaiko Hirugarren Sektorerearen Behatokiko hartzaileei dagokien hirugarren sektorearen azalpen teorikoa eta Bizkaiko Hirugarren Sektorerearen Liburu Zuria bezalako ikerketa-proiektu handienetako baten aztergaia identifikatzeko erabilitako azalpen eragileagoa. Lehenengoaren eremua handiagoa edo zabalagoa da, eta, azalpen eragilean, eragin handiagoa daukate ikerketa-proiektuaren mugek eurek. *Informazio gehiago nahi izanez gero, "Bizkaiko hirugarren sektoreari buruz ematen dugun azalpena" agiria kontsultatu behatokiaren web orrian ikusgai dagoen "Aurkezpena" atalean ([www.3sbizkaia.org](http://www.3sbizkaia.org)).*

Horrela, bada, honako hauxe da bi azalpenen artean dagoen alde nabariena: azalpen eragileak gizarte zibilarren ekimen "formalizatuak" baino ez ditu kontuan hartzen (legezko eraketa juridikoa daukaten erakundeak). Beraz, are zehatzagoa denez, aztergai diren zenbait erakunde utzi ditu kanpoan (nolabaiteko zehaztasun zientifikoaren, azterketaren erabilgarritasunaren... mesedetan).

Horiek horrela, Liburu Zuriaren proiekturako hirugarren sektorearen azalpen eragileak honako sei irizpideok dauzka osagai, eta funtsezkoak dira aztergai dugun errealitatea islatzeko:

1. ekimen formalizatuak
2. eta aktiboak
3. gizarte zibiletik sortu dira eta kudeaketarako autonomia zein independentzia daukate hirugarren sektorekoak ez diren erakundeen aurrean: administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak
4. irabazi-asmorik gabekoak eta boluntarioak dira, oro har
5. zentzu zabalean gizartean esku hartzen dutenez, era guztietako arloetatik hobetzen dute gizarte-ingurunea; horra hor gizarte-ekintza, kultura, garapenerako lankidetzak, giza eskubideak, osasuna, aisialdia eta astialdia, lana, ingurumena..., kirola izan ezik<sup>1</sup>. Beraz, izaera irekia daukate, hau da, bazkideak ez direnentzat zerbitzuak edo jarduerak garatzen dituzte zentzu zabalean.
6. euren jarduera Bizkaitik eta Bizkaian bertan garatzen dute

Aldi berean, irizpide horiek guztiak hausnarketa teorikoagoetan oinarrituta landu dira, hariak eta euren interpretazio objektiboena lortu eta adierazle bihurtu arte.

---

<sup>1</sup> Ez dira kirol-erakundeak kontuan hartu, aztergai den unibertsoa eskuragarriagoa izan behar delako. Izan ere, oraingoz ez dago behar besteko baliabiderik.

## Hirugarren sektorea...

| IRIZPIDEA <sup>2</sup>      | INTERPRETAZIOA                                      | ESKAKIZUNAK  | BAZTERTUTAKOAK | ADIERAZLEAK <sup>3</sup>   | ITURRIA <sup>4</sup>   |
|-----------------------------|---|--|----------------|--|--|
| <b>Ekimen formalizatuak</b> | Legezko egitura juridikoa daukaten erakundeak dira. | Bere irudi juridikoari dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egotea. |                | - Bere irudi juridikoaren arabera erregistro ofizialean daukan zenbakia  | - Erregistro ofizialak   |
| <b>eta aktiboak...</b>      | Jarduera daukaten erakundeak dira.                  | Kontsultaren aurreko urtean jarduera garatu izana.                         |                | - Zerrenda osagarrietan dituen agerpenak (erregistro ofizialen eta zerrenda "osagarrien" arteko bateratasunak)<br>- Dirulaguntzen eskaera eta/edo esleipena<br>- Gutunen itzulketa<br>- Desagerpenen edo jarduerarik ezaren egiaztapenak (egiaztapen zuzena) | - Erregistro osagarriak<br>- EHAA<br>- Ohiko postaz egindako bidalketak<br>- Harreman zuzena erakundeekin (kideekin, kide ohiekin...)<br>- Harreman zuzena hirugarren nabariekin (eurekin lan egiten duten edo lan egiten zuten erakundeak...) |

<sup>2</sup> Kontuan hartutako erakundeek eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

<sup>3</sup> Adierazleei esker, erakunde batek eskakizunak betetzen dituen ala ez jakin ahal izango dugu (guztiak bete behar ditu). Hala ere, irizpide bakoitzeko adierazle eta iturri bat baino gehiago daudenean, agian guztien informazioa eskuratzetik izango ez dugula hartu beharko dugu kontuan.

<sup>4</sup> Berdez, hasierako iturri eskuragarriak, hau da, erakundeekin harremanetan jarri aurrekoak; eta gorriz, osteko iturri eskuragarriak, hau da, erakundeekin harremanetan jarri ostekoak.

|  |   |  |   |  |  |
|--|---|--|---|--|--|
| <p><b>gizarte zibiletik sortu dira eta kudeaketarako autonomia zein independentzia daukate</b> hirugarren sektorekoak ez diren erakundeen aurrean...</p> | <p>Izaera eta jatorri pribatuko erakundeak dira, eta hiritarren ekimen askearen ondorioz sortu dira.</p> <p>Erakundeok kudeaketarako autonomia zein independentzia daukate administrazio publikoaren (arlotu pribatuaren kontrakoa) eta enpresen (irabazi asmorik gabeko arloaren kontrakoa) aurrean eta baita hirugarren sektorekoak ez diren<sup>5</sup> beste erakundeen aurrean: aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak. Horrek ez du esan nahi azken erakunde horiek bertan parte hartzerik ez dutela edo diruz laguntzerik ez dutela, baina euren autonomiari eutsi behar diote.</p> | <p>Bertako gobernu-organoen erdietan baino gehiagotan, hirugarren sektorekoa ez den erakundeko kide ordezkariarik ez egotea eta sortzaile edo kontrolatzaile dituzten erakundeek ez beste helburu edo xede batzuk edukitzea.</p>   | <p><i>Aurrezki-kutxetako gizarte-ekintzak</i> ez dira kontuan hartuko.</p> <p><i>Gurutze Gorria</i><sup>6</sup> eta <i>ONCE</i><sup>*</sup> ez dira kontuan hartuko.</p> <p>Ez dira kontuan hartuko lege-aginduz zenbait funtzio publiko egin behar dituzten korporazioak, funtziook garatzen dituztenean (oinarri pribatuko eta zuzenbide publikoko korporazioak). Horra hor <i>profesionalen elkargoak</i> edo <i>merkataritza-ganbarak</i>...<sup>7</sup></p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortzaileen edo bazkide sortzaileen izena</li> <li>- Erakundearen helburuak</li> <li>- Hirugarren sektorekoak ez diren erakundeek gobernu-organoean dituzten ordezkarien proportzioa</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Estatutuak</b></li> <li>- <b>Erregistroak</b></li> <li>- <b>Harreman zuzena</b></li> <li>- <b>Erakundeekin web orriak, prentsa...</b></li> </ul> |
| <p><b>irabazi-asmorik gabekoak eta boluntarioak dira, oro har...</b></p>   | <p>Erakundeon helburua ez da mozkinak bilatzea, eta, mozkinik egonez gero, ezin dira bertako kideen artean banatu, euren helburua betetzeko erabili behar dira-eta.</p> <p>Oro har, gobernu-organotako kideek eta/edo hirugarrenek borondatez<sup>8</sup> lan egiten dute erakundeotan. Horra hor irabazi-asmorik gabeko sektorearen irudi juridiko nagusiaren ezaugarrietako bat (fundazioetan eta elkarteetan nagusi den arren, ez da gauza bera gertatzen ekimen sozialeko kooperatibetan eta laneratzeko zenbait enpresatan).</p>   | <p>Irabazi-asmorik gabeko sektoreko irudi juridikoa edukitzea (horra hor fundazioak eta elkarteak) edo ekimen sozialeko kooperatiba<sup>9</sup> izatea. Horrez gain, salbuespen moduan, erakundeak merkataritza-sozietateak izan ahalko dira, laneratzeko enpresen kalifikazioa<sup>10</sup> dutenean edo erakunde erlijiosoak (kongregazioak,</p> | <p>Ez dira kontuan hartuko "Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legearen" arabera arautzen ez diren elkarteak, bere ezarpen-eremua irabazi-asmorik gabeko elkarteetara mugatzen duelako eta honako hauexek kanpoan uzten dituelako: <i>sozietate zibilak, merkataritza-sozietateak, industria-sozietateak, lan-sozietateak</i><sup>12</sup>, <i>kooperatibak</i><sup>13</sup>, <i>mutualitateak, aldi baterako enpresa-elkarketak, interes ekonomikoa daukaten elkarteak,</i></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irudi juridikoa</li> <li>- Eskuratutako kalifikazioak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Erregistroak</b></li> </ul>  |

<sup>5</sup> Hirugarren sektorea zer den edo zer ez den adierazten duen azalpen horrek zerikusi handia dauka gaur egun ebatzi gabe dagoen eztabaidako zenbait hausnarketa teorikorekin...

<sup>6</sup> Gurutze Gorria eta ONCE erakunde bereziak dira, tutoretzapeko erakundeak direlako eta euren jardura estatuaren babespean garatzen dutelako (MTAS) (415/1996 Dekretua eta 358/1991 Dekretua).

<sup>7</sup> Kanpoan geratu diren erakundeak dira, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legearen ezarpen-eremutik kanpo geratzen direlako.

Elkargo profesionalak: profesionalek euren interesak defendatzeko egindako elkarketa. Merkataritza-ganbarak: interes ekonomikoak ordezkatu eta administrazioa aholku-organoei diren enpresen elkarketa.

<sup>8</sup> Kasu honetan izaera boluntarioa ez da betekizuna, sektorearen ezaugarria baizik.

<sup>9</sup> Ekimen sozialaren kalifikazioaren arabera, kooperatibak, bere maila edozein dela ere, ez du irabazi-asmorik. Horrez gain, sorospen-zerbitzuak aurkezten ditu osasun, hezkuntza, kultura edo gizarte arloko jardueren bitartez. Bestetik, edozein jardura ekonomiko garatzen du, beti ere bere helburua edonolako gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonak laneratzeko bada eta merkatuak atenditzen ez dituen gizarte-premiei erantzuten badie (61/2000 Dekretua).

<sup>10</sup> Laneratzeko enpresek zenbait irudi juridiko eduki ditzakete (merkataritza-sozietateak, ekonomia sozialeko sozietateak...), baina irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatu behar dituzte eta euren partaidetzapekoak izan behar dira (partaidetza hori %33koa izan behar da gutxienez). Gainera, baztertuta bizi diren taldeak laneratzeko daukate helburu (gizarteratzeko tresna iragankorrak dira, ez, finalistak), eta ez dute mozkinik irabazterik (305/2000 Dekretua).

|  |  |   |  |
|--|--|---|--|
|  |  | <p>institutuak...) izan ahalko dira, zuzenean gizartean esku-hartzen dutenean (eta beste baldintzak betetzen dituztenean).</p> <p>Elkarteak 1/2002 Legearen<sup>11</sup> arabera araututa egotea.</p> | <p><i>ondasun-erkidegoak edo jabeen erkidegoak</i>. Izan ere, euren helburuak eta izaera ez datoz bat elkarteetan onartu ohi den xedearekin<sup>14</sup>. Bestetik, ez dira kontuan hartuko elkartegintzarako araubide berezia daukatenak, "bereziak"<sup>15</sup> direlako; esate baterako, <i>alderdi politikoak, sindikatuak, enpresarien erakundeak, elizak, kirol-federazioak, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak</i>.</p> <p>Ez dira kontuan hartuko <i>helburu erlijiosoetarako bakarrik eratu diren sinesbide, erkidego eta elkarte erlijiosoak</i>.</p> <p>Ez dira <i>lanerako zentro bereziak</i><sup>16</sup> kontuan hartuko.</p> |
| <p>zentzu zabalean <b>gizartean esku hartzen dutenez</b>, era guztietako</p> | <p>Erakundeon helburua gizarte-ingurunea hobetzea izan arren, beste arlo batzuetan ere garatu dezakete euren jarduera; horra hor gizarte-ekintza, kultura, gazteria, ingurumena, nazioarteko lankidetzeta..., kirola izan ezik<sup>17</sup>.</p> | <p>Gizartean esku hartzeko arloren batean ekintzaren bat garatzea eta "gizarte-arloa" hobetzeko jarduera edukitzea.</p>   | <p>Ez dira <i>ikastetxeak</i> kontuan hartuko.</p> <p>Oro har<sup>19</sup>, honako hauexek ez dira kontuan hartuko: <i>elkarte gastronomikoak, profesionalen elkarteak, ikasleen gurasoen</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Esku hartzeko eremua</li> <li>- Bazkideak ez direnentsat zabalik edo itxita dagoen jarduera</li> <li>- Jarduera-mota</li> <li>- Erakundearen helburuak</li> </ul> <p>- Harreman erakundeekin zuzena</p> <p>- Erregistroak</p> <p>- Estatutuak</p>   |

<sup>11</sup> Ez dira kontuan hartuko lege horren arabera araututa ez daudenak, euren helburuak eta izaera ez datozelako bat elkarteetan onartu ohi den xedearekin.

<sup>12</sup> Laneratzeko enpresak izan ezik.

<sup>13</sup> Ekimen sozialeko kooperatibak izan ezik.

<sup>14</sup> Irabazi-asmodun erakundeak dira.

<sup>15</sup> Elkarteon Legeak zehaztutakoak ez beste helburu batzuk dituzte. Espainiako Konstituzioak ezartzen du (alderdi politikoak, 6. artikuluan; langileen sindikatuak, 7. artikuluan; enpresarien elkarteak, 7. artikuluan; kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak, 51.2. artikuluan; eta kirol-federazioak, 43.3. artikuluan).

<sup>16</sup> Lanerako zentro bereziak enpresak dira, eta langile elbarriei euren ezaugarri pertsonaletara egokitutako ordainpeko lan emankorra garatzeko aukera eskaintzen diete, ohiko lan-merkatuan jarduteko abagunea eduki dezaten (izaera finalista). Edozein enpresako arauen arabera kudeatzen dira.

<sup>17</sup> Ez dira kirol-erakundeak kontuan hartu, aztergai den unibertsoa eskuragarriagoa izan behar delako. Izan ere, oraingoz ez dago behar besteko baliabiderik. Beraz, etorkizunean landu beharreko arloa izango da.

<sup>18</sup> Nahiz eta jarduera nagusia ez izan, erakusketak, ate-zabaleko jardunaldiak, ekitaldiak, sentsibilizazio kanpainak, jendaurreko informazioa eta abarreko ekintzak barne kontsideratzen dira.

<sup>19</sup> Ez dira horrelako erakundeak kontuan hartu (Euskadiko Elkarteon Erregistro Orokorreko sailkapenean oinarritutakoak, batez ere), talde bakoitzeko erakunde gehienak "itxiak" direlako (hau da, ez dute bazkideak ez direnentsako zerbitzurik edo jarduerarik garatzen). (Eragileagoa izan da izaera "itxi" hori ez duten erakunde batzuk kanpoan uzten arriskatzeari, gutxi izan arren, ezinezkoa izan delako izaera "itxia" zeintzuk duten argi eta garbi zehaztea, gehienak).

|   |   |  |  |
|---|---|--|--|
| <p>arlotatik hobetzen dute gizarte-ingurunea...</p> | <p>Gizarte-erabilerako erakundeak direnez, euren kideen helburuekin bat datozenetatik haratago doazela esan daiteke oro har.</p>                            | <p>Bazkideak ez direnzentzat zerbitzuak edo jarduerak garatzea zentzu zabalean (jarduera osoaren parte bat behintzat edozein hartzaileri zuzenduta egotea, kidea izan edo ez<sup>18</sup>). Federazioak salbuespen dira.</p> | <p><i>elkarteak, ikasleen elkarteak, ikasleen eta ikasle ohien elkarteak, jolas-elkarteak (lagunarteak, konpartsak, jai-batzordeak), zezenketa-elkarteak, irrat-elkarteak (irratizaleenak), filatelikoak eta numismatikoak, mikologikoak, erasandakoenak eta biktimenak (gaixoena izan ezik); zaletuenak eta bildumagileenak, kofradiak eta ermandadeak; zientziarekin, astronomiarekin eta meteorologiarekin... zerikusia daukatenak; ekonomiarekin, industriarekin, enpresarekin, kudeaketarekin... zerikusia daukatenak; teknologiarekin, informatikarekin... zerikusia daukatenak; astrologiakoak; txakurrenak edo antzekoak (txakur gidariekin zerikusia daukatenak izan ezik)... ez eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko edo laneko fundazioak<sup>20</sup>.</i></p> <p>Ez dira <i>kirol-elkarteak</i><sup>21</sup> kontuan hartuko, ez <i>lehiarakoak</i><sup>22</sup> ez <i>lehiarakoak ez direnak</i><sup>23</sup>.</p> |
| <p><b>Bizkaiko Lurralde Historikoan.</b></p>        | <p>Erakundeotako egoitza nagusia edo ordezkaritza Bizkaiko Lurralde Historikoan dago, eta euren jarduera edo jardueraren zati bat bertan garatzen dute.</p> | <p>Bizkaiko Lurralde Historikoko mugen barruan lan egitea eta, gutxienez, egoitza, zentroa edo ordezkaritza edukitzea Bizkaian.</p>  | <p>- Helbidea<br/>- Jarduketa-eremua</p> <p>- Erregistroak<br/>- Harreman erakundeekin zuzena</p>  |

<sup>20</sup> Izen hori agertzen da Euskadiko Fundazioen Erregistro Ofizialean.

<sup>21</sup> Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistro Ofizialean "yogakoak eta arte martzialetakoak" direnak.

<sup>22</sup> Egia esan, ez dira lehiarako kirol-elkarteak kontuan hartzen, sozietate-kontratuari dagozkion xedapenen arabera arautzen direlako. Beraz, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legearen ezarpen-eremutik kanpo geratzen dira.

<sup>23</sup> Elkarte hauek Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legearen ezarpen-eremukoak badira ere, ez dira kontuan hartuko aztergaia zedarritu egin behar delako eta unibertsoa eskuragarriagoa izan behar delako, hau da, oro har eskakizunak betetzen dituzten erakundeak izan arren, ez dira ikerketa honetan kontuan hartu.



